

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3813

*795/2026 EBAZPENA, uztailaren 27koa, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko burua aldi baterako eta lau urte luzagarriz izendatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Goierri-Urola Garaiko ESIko zuzendari-gerentearen apirilaren 28ko 662/2026 Ebazpenaren bidez, deialdi bat argitaratu zen Goierri-Urola Garaiko ESIko Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru lanpostua hornitzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2026ko maiatzaren 26ko EHAA eta 2026ko maiatzaren 26ko BOE).

Epaimahai kalifikatzaileak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Ainara Iriarte Rodríguezek dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuan.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hirugarren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru izendatzea Ainara Iriarte Rodríguez andrea, aldi baterako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.— Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, baldin eta jazotzen ez bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.— Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espediente baldin badago eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.— Interesdunari eta Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

2026ko irailaren 7a, astelehena

Seigarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osa-  
kideza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da,  
Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zumarraga, 2026ko uztailaren 27a.

Goierrri-Urola Garaiko ESIko zuzendari-gerentea,  
LAURA AGUIRRE ALBERDI.